

Lanbide Heziketa

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea / Ondoren 1

IKASGAIA

Zientzia Aplikatuak,
Komunikazioa eta Gizarte
Zientziak

GAI EKOSOZIALAK

- Ekodependentzia
- Zibilizazio krisia
- Aldaketa ekosozialeko eragileak

INGURUMEN-POLITIKAK

- Ekonomia zirkularra
- Ura
- Hondakinak
- Kontsumoa
- Biodibertsitatea
- Ohitura jasangarriak
- Lurzorua
- Aldaketa klimatikoa



Ikas egoeraren markoa

TESTUINGURUA. Garapen ekonomiko ez-jasangarri baten ondorioz gizakiek eragindako klima-aldaketak planetako bizitza mehatxatzen du. Gizadiaren eta naturaren arteko oreka hausteko prozesu horrek jauzi handia jasan zuen Industria Iraultzatik aurrera, garapen teknologikoagatik eta natura mugarik gabe ustiatzeko geurea zelako ideiatatik, hazkunde ekonomikoa etengabea eta geldiezina zela uste zelako. Bizkaiko burdin meategiak zentzugabekeria horren adibide bikaina dira: Bizkaiko aberastasuna sortu zuten, baina ingurumen-inkaktu handien kontura. Gizakiak errotik eraldatu zuen paisaia, baina, zorionez, meategiak itxi ondoren, natura berreskuratzen ari da. Hala ere, birsortze-prozesu horrek gure laguntza behar du, planetaren osasuna gure esku dagoelako, eta gure pentsamolde kontsumista aldatu behar dugulako eta gure bizi-ohiturak egokitu behar ditugulako klima-aldaketa geldiarazteko.

Abiapuntua

“Naturak 100 milioi urtez gorde zuen burdin minerala, gizakiak 100 urte baino gutxiagoan agortu zuen “. Hau al da garapen iraunkorreko eredu bat? Hazkunde ekonomiko eta

teknologikoak dena justifikatzen al du? Nola eragiten diote gure ekintzek eta bizi-ohiturek planetaren osasunari? Zer egin dezakegu klima-aldaketa geldiarazteko?

AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.

- Aurretik, ikasgelan, ikasleek bisita prestatu beharko dute, Ekoetxetik jasotzen duten informazioarekin eta hainbat hedabidetan bilatzen dutenarekin: gunearen kokapena, ezaugarri historikoak, naturalak...
- Bisitan zehar ibilbide bat egingo da Zugaztietako meatzalde zaharrean zehar, behatutakoaren espermentazioan, galdera-erantzunen trukean eta material didaktikoaren laguntzan oinarritutako metodologia batekin. Gizakiak erabat eraldatutako paisaia paregabea aurkituko dugu, burdin meategien ezaugarriak ezagutuko ditugu eta garapen ez-jasangarri baten ondorioak ulertuko ditugu. Zugaztietako meatze-azuloan meatzarien lan- eta bizi-baldintzak aztertuko ditugu, eta gaur egungoekin alderatuko ditugu. Gure bizimodu kontsumista klima-aldaketa bizkortzen ari da, eta, horri aurre egiteko, ekintzara igaro behar dugu eta ohitura iraunkorrak hartu. Horretarako, ikasleek ingurumen-konpromiso bat aukeratu eta ikasgelan egin beharko dute. Labirintoa bisitatzeko aukera ere badago, gizakiak ere esku hartu duen paisaia karstikoa, baita Ekoetxearen erakusketa ere.
- Ondoren, ikasgelan hainbat jarduera egingo dira, espermentatutakoa sendotzeko eta hartutako ingurumen-konpromisoa betetzeko.

HELBURU KOMPETENZIALAK

- Zugaztietako paisaia berezia osatzen duten ezaugarriak eta elementuak eta bertako biodibertsitatearen bilakaera ezagutzea.
- Gizakiak ingurunean duen eragina eta jasangarriak ez diren giza jardueren (burdin meategiak, turismoa...) ingurumen- eta gizarte-ondorioak ulertzea.
- Meatzarien lan- eta bizi-baldintzak ezagutzea, eta gure bizi-mailari eta beste herrialde batzuetako egoerari buruz hausnartzea.
- Ulertzea klima-aldaketaren aurkako borrokak ezin duela itxaron, eta pertsona guztiok ekintzak egin eta gure bizi-ohiturak aldatu behar ditugula horri aurre egiteko.
- Naturguneek gozatzeak dakartzen onurak sentitzea eta baloratzea, naturarekiko eta tokiko biztanleekiko errespetuzko jarrerak garatuz.


Curriculumaren zehaztapenak

ZIENTZIA APLIKATUAK

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
STEM KD KPSII EK	1, 2, 3 1, 3 4, 5 1	3. Metodo zientifikoak erabiltzea, araketak eginez eta proiektuak burutuz, pentsamendu zientifikoaren berezko arrazoibideak garatzeko eta metodologia zientifikoaren erabilerari lotutako trebetasunak hobetzeko.	3.1. Erantzun edo kontrastatu daitezkeen galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak, behaketa, informazioa eta arrazoiketa erabiliz, fenomeno naturalak azalduz eta horiei buruzko iragarpenak eginez.	A. Oinarrizko trebetasun zientifikoak – Ikaskuntza zientifikoko inguruneak eta baliabideak (laborategia eta ingurune birtualak, esaterako): erabilera egokia, norberaren eta komunitatearen osasunaren kontserbazioa, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuko dituena. I. Giza gorputza eta osasuna – Ohitura osasungarriak (kontsumoaren prebentzioa, dieta orekatua, gailu teknologikoen erabilera arduratsua, ariketa fisikoak: garrantziari buruzko argudio zientifikoak. J. Lurra, sistema eta garapen iraunkorra – Ekosistemak. Ikasleengandik hurbil dauden ekosistema batzuk aztertzea. – Klima-aldaketa: faktore kausalen azterketa, ondorio posibleak eta ekintza indibidual eta kolektiboaren ondorio globalei buruzko hausnarketa. Lotura GJHren 13. helburuarekin: "Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea". – Barruko eta kanpoko fenomeno geologikoak: planetaren dinamika globalari buruzko argudioa, plaken tektonikaren teoriaren argitan.
STEM KD KPSII HK	5 4 2 4	4. Eguneroko edo lanbide-inguruneke ekintza jakin batzuek osasunean eta ingurune natural eta sozialean dituzten ondorioak analizatzea, oinarri zientifikoetan oinarrituz eta tresna eta arrazoibide matematikoak erabiliz, osasun indibiduala eta kolektiboa hobetzen duten eta garapen jasangarriarekin bateragarriak diren ohituren garrantzia baloratzeke.	4.1. Ekintza indibidual jakin batzuek organismoan eta ingurune naturalean dituzten ondorioak ebaluatzea, ohitura osasungarriak eta jasangarriak proposatuz, eskuratutako ezagutzetan eta eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta. 4.2. Biodibersitatearen zaintza, ingurumenaren kontserbazioa, inguruneke izaki bizidunen babesaren, garapen jasangarria eta bizi-kalitatea erlazionatzea oinarri zientifikoak erabiliz. 4.3. Biodibersitatearen zaintzaren, ingurumenaren kontserbazioaren, inguruneke izaki bizidunen babesaren, garapen jasangarriaren eta bizi-kalitatearen garrantziari buruz argudiatzea, oinarri eta irizpide zientifikoak erabiliz. 4.4. Organismoen izaera eta ekosistemetan dituzten interakzioak aztertzea, tresna eta arrazoibide matematikoak erabiliz, ohitura osasungarriak eta garapen jasangarria bultzatuz.	



KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ONINARRIZKO JAKINTZAK
KE KPSII HK KAKK	3 1 1, 2, 3 1	1. Gizarte-harremanen, jarduera ekonomikoen, kultura-adierazpenen eta ondare-ondasunen izaera historikoa identifikatzea eta ulertzea, haien jatorriak eta bilakaera aztertuz eta gertatutako aldaketen arrazoiak eta ondorioak, egungo arazoak eta balioak identifikatuz, etorkizuneko ongizatea eta gizartearen garapen jasangarria lortzen lagunduko duten proposamenak egiteko.	<p>1.1 “Paisaia” kontzeptuaren bitartez ingurunea ikuspegi sistemiko eta integratzaile batetik aztertzea eta interpretatzea, haren elementu nagusiak eta dauden erlazioak identifikatuz eta, ingurune naturala, landa-ingurunea eta hiri-ingurunea defendatu, babestu, kontserbatu eta hobetzeko jarreretatik abiatuta, espazioen iraunkortasun- eta oreka-maila baloratu.</p> <p>1.3. Ondare artistikoa, historikoa eta kulturala gure identitate kolektiboaren oinarri gisa baloratzea, babestea eta kontserbatzea, aisia- eta kultura-gozamenerako ondasuntzat eta herriak garatzeko baliabidetzat hartuz, eta legatu historikoa, instituzionala, artistikoa eta kulturala ondare komun gisa estimatuz.</p>	<p>A. Gizarte Zientziak.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Giza aztarna eta ingurumen-, historia-, arte- eta kultura-ondarearen kontserbazioa, babesa eta defentsa. – Gizarte-aniztasuna eta kultura-aniztasuna: gizarteratzea eta gizarte-kohesioa. – Konpromisoa eta ekintza Garapen Iraunkorreko Helburuen aurrean. – Erakunde eta erakunde sozial, politiko eta ekonomikoak.
HKK HK EK KAKK	2 1, 2, 3, 4 1 1	2. Integrazio-prozesuen jatorria eta bilakaera eta prozesu horiek Espainiako, autonomia-erkidegoetako eta toki-erkidegoetako gizartearen egungo egoeran eta etorkizunean duten garrantzia ulertzea, Estatuak eta adierazitako erkidegoek, bertako erakundeek eta gizarte-entitateek bakeari, nazioarteko kooperazioari, garapen jasangarriari eta herritartasun globalari egindako ekarpena azpimarratuz, mundu seguruagoa, solidarioagoa, iraunkorragoa eta bidezkoagoa sortzen laguntzeko.	2.3. Europako egungo errealitatea garapen jasangarriaren eta herritartasun globalaren ikuspegitik interpretatzea, konponbideen bilaketan inplikatzek duen garrantzia eta ekintza-gaitasun indibidualetik abiatuta konponbide horiek zehazteko modua ezagutuz.	

Ikuspegi ekosoziala

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- * Giza ekomendekotasuna barneratzea. Bizitzaren egituraren parte garena konturatzea.

- * Biosfera gurtu. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen delako ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentristatik ekozentristamora pasatzea.

- * Lur planetaren mugak ezagutzeko balibideetan eta hustubideetan.



- * Arazoen sorburu izango diren krisi ekologiko eta sozialerako konponbideak baloratzea.

- * Justizia soziala beharrezko gaitasun unibertsal gisa baloratzea (biziraupena, babesa, afektua, ulermena, parte-hartzea, aisialdia, sorkuntza, identitatea eta askatasuna), gure mendeko natura kontserbatzeko esparru baten barruan. Unibertsalizatu ezin diren praktikak pribilegiotzat hartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- * Izaki bizidun guztiak elkarri lotuta daudela onartzea.
- * Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea.

- * Biodibertsitatea babesteko ekintzak egitea/Oreka ekosistemikoen aldeko jarrerak erakustea.
- * Natura gizakiek kontrola dezaketela edo kontrolatu behar dela dioen ideiarekin aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.

- * Planeta mugatu batean hazkunderari eta kontsumoari mugak daudela sinetsita adieraztea.

- * Gizarte- eta ingurumen-ingurunea hobetzearen aldeko jarrerak eta bizimoduak erakustea.

- * Identitate bat eraikitzea, ez bakarrik indibiduala, baizik eta kolektiboa ere izango dena eta naturaren zati gisa ulertuko dena.

- * Justizia soziala defendatzea, beharrezko unibertsalki asetzea bezala.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Ekomendekotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrezko modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.

- * Natura zaintzearen garrantzia.
- * Lurraren eskubideak. Lurra subjektu gisa, ez menderatu beharreko objektu gisa.

- * Etengabeko hazkunderako ezintasuna. Mendebaldeko bizimoduaren aztarna ekologikoa.

- * Maila kolektiboko krisi material eta energetikoen aurkako neurriak: ondasunak partekatzea, energia berriztagarrietarako trantsizioa, etab.

- * Banakako krisi material eta energetikoen aurkako neurriak: kontsumoa, mugikortasuna, ondasunen konponketa eta abar murriztea.

- * Garapenaren ordezkotza ereduak eta proposamenak. Garapenaren ideiarekin balorazio kritikoa.

- * Identitatea eraikitzea, ez bakarrik banakako zerbait bezala, baita kolektiboa eta identitate ekozentrikoa ere (ekosistema baten zati bezala).

- * Gutxieneko kontsumo sozialak, ingurumenaren oinarriko eta gehieneko beharrezko gaitasun unibertsal gisa baloratzea (biziraupena, babesa, afektua, ulermena, parte-hartzea, aisialdia, sorkuntza, identitatea eta askatasuna), gure mendeko natura kontserbatzeko esparru baten barruan. Unibertsalizatu ezin diren praktikak pribilegiotzat hartzea.

- * Kontsumismoa, injustizia soziala, planetaren degradazioa eta pribilegioak..

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.

Lanbide Heziketa

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea / Ondoren 1



Metodologia



ESTRATEGIA

Arazoetan oinarritutako
ikaskuntza
Gogoetan oinarritutako
ikaskuntza



ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ikuspegi sozioafektiboa
Ekintzarako ikaskuntza
Ezagutzaren eraikuntza
kolektiboa
Ikaskuntza aktiboa
Inklusioa
Ikuspegi holistiko eta
kritikoa



TEKNIKAK

OHIKOAK:
Debate / Asanbladat
Ikus-entzunezkoak
Entzute kolektiboa
Azalpenak talde
handietan

EZOHIKOAK:
Beste batzuk: Ingurune
naturala / Ekoetxea

